



## SOUVENIR

### Castillo Suarez

Liburua irudi surrealistaz beteta dago. Neurri batean, susmagarria egiten zait... Une jakin batean, poema batzen saiatuko den inspirazio bat azaltzen da, baina beti ez, eta hori gertatzen denean, artifizialtasun-sentsazio bat sorrarazten dit. Areago, hainbat poematako esaldiak elkarrekin nahasteko saioa egin dut, poema bakarra sortzeko, eta emaitza ez da modu esanguratsuan aldatzen... poemaren esaldi “giltzarriarengatik” izan ezik. Hona hemen esaldi giltzarri baten adibidea: “Haurtzaroa lurperatu dut, baina ez dakit non”. Esaldi polita da, esaldi iradokorra eta oso afinatua da. Esaldi horren atzean egon zitekeen guztiak garrantzitsua izateari uzten dio. Hori Souvenir poesiaren parte da (etengabe).

Batzuetan, Souvenir liburuko poemak faltsuak begitantzen zaizkit, benazko eta zinezko barne-ahots bat egongo ez balitz bezala. Collage moduko bat da, beste margo batzuetatik, beste collage batzuetatik ateratako ehunkiak bailiran. Irudi gehiegi espazio ñimiño batean. 3. poeman zera dio: [...] poema honen hasieratik ari bainaiz gezurretan, eta, gainera, gauza garrantzitsuak ez baitira inoiz ozenki esaten”. Esanguratsua da... halako aitortpen bat balitz bezala... 19. poema esaldi jator batekin zabaltzen da: “Zirrara sentitzen dut besteen tiraderak arakutzen ditudanean”. Ondo. Esaldi polita da, baina jarraian “Saihetsen arteko labainkada, eta hotza egiten du kanpoan”. Hau da, berriro hasi da handik eta hemendik ateratako collage-zatiak erabiltzen. Hasierako esaldiak ez du segidarik. Zirrara mozten du. Eta horren ordez, doako irudi bat jartzen dit aurrean.

Bigarren atala zabaltzeko Gorka Arbizuren poema-zati bat aukeratu du Suarezek. Honela dio: “Barkatu baina Aresti oker zebilen: / Poesia ez da mailua / (h)iltzea baizik”. Orduan, zera pasatu zait burutik: Aresti esan izan balu “poesia iltzea dela”, nik susmoa dut Gorka Arbizuk ez ote zukeen esango: “Barkatu baina Aresti oker zebilen: / Poesia ez da hiltzea, mailua baizik”... Honek ez du zerikusirik Castillo Suarezekin, baina burura etorri zaidanez...

Souvenir liburuan bildutako poesiak badu xarma, baina hala eta guztiz ere, halako mesfidantza bat eragiten dit... Poesiak gauza “garrantzitsuak” espresatu behar dituela uste dut, baina garrantzitsuak ez gizateriaren bilakaerarako, norberarentzat baizik...

Baditu inpaktu handia eragiten duten esaldiak (eta hori ona da), esaterako, “Ez duzu balio lekuko gisa, arrebak larrua nola jotzen duen begiratzeko”, “nork ez du besarkada bortxatu bat eman inoiz”, “Ni nintzen eskulanak hondatzen zizkizuna haurrak ginenean”, “Ez naiz inoiz izan klaseko lodia, lesbiana edo ikastuna”, “Betegabeko monobolumenak”, “Ea nondik heldu den gure destaina”, “Haurrak ginenean egia txikiekin egiten genuen hegan”, eta abar, eta abar, eta abar. Lehen aipatu ditudan esaldi giltzarriak dira. Irudi absurdu horien guztien erdian, poemetako bakoitzean ugari azaltzen diren loturagabeko esaldi horien erdian, bat-batean esaldi bikain horietako bat sortzen da, dela poemari zentzua emateko dela poema osoa bereganatzeko. Txokolata eta gatzak nahastea bezalakoa da; jakituriaz (edo senez edo zuzenki) nahasiz gero, emaitza ona da; bikaina da. Egiten jakin beharra dago ordea. Eta Castillo Suárezek badaki hori egiten.

“Larrua jo” aditza behin baino gehiagotan agertzen da, makillaje handirik gabe. Castillo Suarezen poemetan erotismoa ere badago, baina idealizatu gabeko erotismoa da. Gero, 53. poema bereziki gustatu zait. Egileak tiraderak gogoko ditu, maiz aipatzen ditu-eta (bai erakargarriak tiraderatxoak!). Azken sortako poemak artifizio gabeak dira (utikan surrealismoa!).

Originala da eta talentua du.



## SOUVENIR

### Castillo Suarez

Liburua irudi surrealistaz beteta dago. Neurri batean, susmagarria egiten zait... Une jakin batean, poema batzen saiatuko den inspirazio bat azaltzen da, baina beti ez, eta hori gertatzen denean, artifizialtasun-sentsazio bat sorrarazten dit. Areago, hainbat poematako esaldiak elkarrekin nahasteko saioa egin dut, poema bakarra sortzeko, eta emaitza ez da modu esanguratsuan aldatzen... poemaren esaldi “giltzarriarengatik” izan ezik. Hona hemen esaldi giltzarri baten adibidea: “Haurtzaroa lurperatu dut, baina ez dakit non”. Esaldi polita da, esaldi iradokorra eta oso afinatua da. Esaldi horren atzean egon zitekeen guztiak garrantzitsua izateari uzten dio. Hori Souvenir poesiaren parte da (etengabe).

Batzuetan, Souvenir liburuko poemak faltsuak begitantzen zaizkit, benazko eta zinezko barne-ahots bat egongo ez balitz bezala. Collage moduko bat da, beste margo batzuetatik, beste collage batzuetatik ateratako ehunkiak bailiran. Irudi gehiegi espazio ñimiño batean. 3. poeman zera dio: [...] poema honen hasieratik ari bainaiz gezurretan, eta, gainera, gauza garrantzitsuak ez baitira inoiz ozenki esaten”. Esanguratsua da... halako aitortpen bat balitz bezala... 19. poema esaldi jator batekin zabaltzen da: “Zirrara sentitzen dut besteen tiraderak arakutzen ditudanean”. Ondo. Esaldi polita da, baina jarraian “Saihetsen arteko labainkada, eta hotza egiten du kanpoan”. Hau da, berriro hasi da handik eta hemendik ateratako collage-zatiak erabiltzen. Hasierako esaldiak ez du segidarik. Zirrara mozten du. Eta horren ordez, doako irudi bat jartzen dit aurrean.

Bigarren atala zabaltzeko Gorka Arbizuren poema-zati bat aukeratu du Suarezek. Honela dio: “Barkatu baina Aresti oker zebilen: / Poesia ez da mailua / (h)iltzea baizik”. Orduan, zera pasatu zait burutik: Aresti esan izan balu “poesia iltzea dela”, nik susmoa dut Gorka Arbizuk ez ote zukeen esango: “Barkatu baina Aresti oker zebilen: / Poesia ez da hiltzea, mailua baizik”... Honek ez du zerikusirik Castillo Suarezekin, baina burura etorri zaidanez...

Souvenir liburuan bildutako poesiak badu xarma, baina hala eta guztiz ere, halako mesfidantza bat eragiten dit... Poesiak gauza “garrantzitsuak” espresatu behar dituela uste dut, baina garrantzitsuak ez gizateriaren bilakaerarako, norberarentzat baizik...

Baditu inpaktu handia eragiten duten esaldiak (eta hori ona da), esaterako, “Ez duzu balio lekuko gisa, arrebak larrua nola jotzen duen begiratzeko”, “nork ez du besarkada bortxatu bat eman inoiz”, “Ni nintzen eskulanak hondatzen zizkizuna haurrak ginenean”, “Ez naiz inoiz izan klaseko lodia, lesbiana edo ikastuna”, “Betegabeko monobolumenak”, “Ea nondik heldu den gure destaina”, “Haurrak ginenean egia txikiekin egiten genuen hegan”, eta abar, eta abar, eta abar. Lehen aipatu ditudan esaldi giltzarriak dira. Irudi absurdu horien guztien erdian, poemetako bakoitzean ugari azaltzen diren loturagabeko esaldi horien erdian, bat-batean esaldi bikain horietako bat sortzen da, dela poemari zentzua emateko dela poema osoa bereganatzeko. Txokolata eta gatzak nahastea bezalakoa da; jakituriaz (edo senez edo zuzenki) nahasiz gero, emaitza ona da; bikaina da. Egiten jakin beharra dago ordea. Eta Castillo Suárezek badaki hori egiten.

“Larrua jo” aditza behin baino gehiagotan agertzen da, makillaje handirik gabe. Castillo Suarez-en poemetan erotismoa ere badago, baina idealizatu gabeko erotismoa da. Gero, 53. poema bereziki gustatu zait. Egileak tiraderak gogoko ditu, maiz aipatzen ditu-eta (bai erakargarriak tiraderatxoak!). Azken sortako poemak artifizio gabeak dira (utikan surrealismoa!).

Castillo Suarez originala da eta talentua du.